

*Coro Sinfónico de la Federación de Coros de Navarra*

PROGRAMA

**I. Agur María.** Aurelio Sagaseta Arízteguі

Tonalidad Fa M.- Andante (*Agur Maria*), Piu Mosso (*Jauna dago zurekin*), 1° tempo (*Agur Maria*).

El objetivo de la organización es dar a conocer un patrimonio musical local, en este caso un organista del s. XIX y un maestro de capilla actual en activo. El Agur Maria quiere ser una simple introducción a la Misa.

Mucho antes de que se impusiera la conocida melodía de "Gure Aita" (Padre nuestro) en la liturgia actual en euskera, se cantaba la misma con el texto de "Aita gurea" o "Agur Maria", por ejemplo en el Rosario de la aurora de octubre de Ituren (Navarra). La versión del "Gure Aita" fue consensuada en San Sebastián en 1969 por un jurado en un concurso interregional presidido por el compositor Francisco Escudero. La melodía popular había sido presentada al respecto por el que suscribe, y de aquí pasó a la liturgia posconciliar o actual en euskera.

La melodía del "Agur Maria" (Ave María) fue elaborada más tarde para coro y orquesta. La partitura evoca el tradicional rosario del amanecer a la vera del monte Mendaur, antes de salir a cortar helechos o a cazar palomas (octubre), y se repetía en el ángelus del mediodía, volviendo a sonar mientras las campanas vespertinas cerraban el día y el valle (illun ezkilla). Quizá sea una evocación del conocido cuadro "L´Angelus" de J. F. Millet, pero sobre el fondo de Malerreka...

En dos momentos de la partitura un grupo de "rezadoras " se entremezcla con el coro y la orquesta con el texto antiguo preconciliar del "Agur Maria". Existe una grabación tomada de un concierto en directo (coro y orquesta) de la Capilla de Música "El Motu Proprio y su música (s. XX)" en el auditorio de la Real Academia de San Fernando de Madrid (2004).

La partitura está dedicada por el autor a la importante mezzo Maite Beaumont, entonces (1999) adolescente y prometedora voz de la Capilla de Música.

**II. Misa a ocho voces y grande orquesta**

Buenaventura Iñiguez Tellechea

**Estructura de la obra:**

***a) Kyrie eleison-Christe eleison-Kyrie eleison***
Tonalidad: La menor – Larghetto.

Después de una breve introducción orquestal, entra el coro I, al que responde el Coro II en valores más rápidos, entablándose un diálogo policoral entre ambos. El *Christe* nos conduce a tonalidades más lejanas (La Bm) para introducir 2 voces solistas (bajo y contralto).

En la praxis catedralicia de la época el Coro I estaba formado por profesionales (los elementos de la propia Capilla de Música) y la voz de contralto (muchas veces varón adulto) tenía una presencia musical notable dentro de la obra. Por contra, Buenaventura Iñiguez prescinde del Contralto solista en este número.

La tercera parte o *Kyrie eleison* comienza con el tema inicial del primer *Kyrie*, pero luego adquiere un fugado de estilo libre con valores rápidos y bastante cromáticos en el Coro I, mientras que le acompaña el Coro II en notas más largas, ritmos que por fin se juntan en los 10 últimos compases.

***b) Gloria in excelsis Deo***
Tonalidad; La menor – Allegro (*Gloria*), Andtno. (Laudamus te), Andante (*Gratias agimus tibi*), Andtno. (*Domine Deus)*, Adagio (*Qui tollis*), All°. Mdto. (*Quoniam tu solus*), Vivo (C*um Sancto Spiritu*). Abundan los solos y un terceto central después de un largo solo del bajo. El trío está formado por el tenor y bajo del coro I y tenor del coro II, si bien señala el mismo autor que éste puede ser sustituido por un tiple. El *Gloria* es el número más largo y elaborado de la misa con abundantes repeticiones del mismo texto. La cuerda adquiere un notable desarrollo en el Allegro Mdto. del *Quoniam* y sobre todo en el Vivo final del *Cum Sancto Spiritu*.

***c) Credo***
Tonalidad: Fa mayor-Modto. (*Credo in unum Deum*), Adte. Modto. (*Et incarnatus est*), Allegro (*Et resurrexit*), Vivo (*Et vitan venturi-Amen*). La misa "para grande orquesta" carece de Credo, si bien el autor mismo al final de la partitura manuscrita firmada por él señala que se puede tomar de la otra misa ("para pequeña orquesta" a 4 voces). Esta versión a 4 voces en la Catedral de Pamplona aparece a dos coros y 8 voces, muy posiblemente porque algún maestro de capilla (¿Hipólito Ramírez Larraz?) la arregló para su planilla al uso. Esta adaptación en este caso y en otros similares consistía en encomendar al coro I (a la Capilla de Música), toda la obra, mientras que el Coro II doblaba al primero en los pasajes más fuertes y se callaba (*Tacet*) en otros. O sea, el Coro II aquí no añade nada nuevo, simplemente se suma al primero en momentos significativos. Es la versión que se ofrece hoy.

El *Credo* es más coral y menos solístico que la Misa "para grande orquesta". Asimismo, la orquestación está menos elaborada que en la obra anterior.

***d) Sanctus***
Tonalidad: Si bemol M. – Andante Mosso. Tanto el *Sanctus* como el *Agnus Dei*, escritos a dos coros y 8 voces reales, tienen una extensión claramente más reducida que los números anteriores (*Kyrie, Gloria* y *Credo*). Las trompas exponen por aumentación la melodía gregoriana, y después de dos compases del bajo, responden los dos coros. La frase "Pleni sunt caeli" es encomendada al tenor solista, que extrañamente es respondido solo por el coro II.

***e) Agnus Dei***
Tonalidad: Fa M.-Allegro Modto. Solo del bajo y tenor con diálogo policoral de ambos coros. El tercer *Agnus* nos lleva a una tonalidad distante (Do sost. M. que por enarmonía amanece en Re B. M. y Fa M.), todo en el término de 5 compases (*dona nobis pacem*), lo que resulta un tanto sorprendente dentro de la sencilla armonía de toda la misa. Inmediatamente repite la idea y acaba "pacíficamente" en la tonalidad de origen. Parece un efecto buscado por el autor de acuerdo con el texto litúrgico.



**Buenaventura Íñiguez Tellechea** (Sangüesa 1840 - Sevilla 1902), organista y compositor. Fue alumno de Hilarión Eslava quién lo orientó hacia la plaza de organista de la Catedral de Sevilla, obteniendo el beneficio mediante oposición en 1865. A los pocos días de la toma de posesión, la prensa local valoraba sus dotes de improvisador al órgano. Fue nombrado presidente de la Unión Artística de Sevilla y perteneció a la Real Academia de Londres y al Gran Círculo de Bellini de Catania (Italia), a la vez que fue premiado en el Certamen de la Exposición Universal de Barcelona (1888).

**Aurelio Sagaseta Arízteguі** (Ituren 1935-). Canónigo-Maestro de Capilla de la Catedral de Pamplona desde 1962, además de catedrático de Composición en el Conservatorio Superior de Música Pablo Sarasate, presidente de la Asociación Española de Musicólogos Eclesiásticos desde 1992, Académico correspondiente de Bellas Artes de San Fernando (Sección Música) y director de conciertos de coro y orquesta.

PRÓXIMO CONCIERTO:

Jueves, 11 de abril | 20:00 h
Iglesia San Saturnino

***La voz de la viola***

Isabel Villanueva

DL/LG: NA 754-2019

Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala

Nafarroako Gobernua | Gobierno de Navarra



# *Misa a ocho voces y grande orquesta.*

*Buenaventura Íñiguez Tellechea*

**Coro Sinfónico de la Federación de Coros de Navarra y Orquesta Sinfónica de la Rioja y solistas**

Director Orquesta: **JESÚS MARÍA ECHEVERRÍA**

Director Coro: **MÁXIMO OLORIZ**

BALUARTE.
PALACIO DE CONGRESOS Y
AUDITORIO DE NAVARRA

**Miércoles, 10 de abril | 20:00 h**

FESTIVAL DE MÚSICA SACRA
ERLIJIO-MUSIKAKO JAIALDIA

ABRIL | **2019** | APIRILA



*Nafarroako Abesbatzen Federazioko Abesbatza sinfonikoa*

## PROGRAMA

### I. ***Agur Maria.*** Aurelio Sagaseta Aríztegui

Tonalitatea: Fa M. - Andante. (*Agur Maria*), Piu Mosso (*Jauna dago zurekin*), 1. tempoa (*Agur Maria*).

Erakundearen asmoa tokiko musika-ondarea ezagutaraztea da, kasu honetan XIX. mendeko organo-jotzailearena eta egun jardunean den kapera-maisu batena. *Agur Maria* mezarako sarrera bakun gisa sortutakoa da.

Euskarazko egungo liturgian *Gure Aita* doinu ezaguna gailendu baino askoz lehenago, *Aita gurea* edo *Agur Mariaren* testuarekin kantatzen zen hura, kasurako, Iturenen (Nafarroa), urriko egunsentiko Arrosarioan. *Gure Aita*ren bertsioa Donostian hitzartu zuten, 1969an, Francisco Escudero konpositorea buru zuen eskualde arteko lehiaketa bateko epaimahaian. Kanta herrikoia horretara aurkeztu zuen haren egileak, eta hortik, egungo edo kontzilio osteko euskarazko liturgiara igaro zen.

*Agur Maria*ren doinua beranduago egin zen, koru eta orkestrarako. Partiturak egunsentiko arrosarioa ekartzen du gogora, Mendaur mendiaren aldamenean, urrian, iratzetara edo usotara joan aitzin. Eguerdiko angelusean errepikatu eta berriro aditzen zen ilunabarreko kanpaiak jo ahala eguna bukatu eta ibarra bere baitan biltzean. Izan liteke J. F. Millet-en *L´Angelus* margolan ezagunaren isla, baina kasu honetan, Malerreka ageri dela atzealdean.

Partituraren bi unetan, otoitzean ari diren emakume taldea koruarekin eta orkestrarekin nahasten da, kontzilio aurreko *Agur Mariaren* testuaz. Bada *El Motu Proprio y su música* (XX. m.) Musika Kaperak zuzenean emandako kontzertu baten grabazio bat (abesbatza eta orkestra), Madrilgo San Fernandoko Errege Akademiako auditoriumean (2004).

Egileak Maite Beaumont mezzo garrantzitsuari eskaini zion partitura, artean (1999) Musika Kaperan etorkizun oparoko nerabe-ahotsa.

### II. ***Meza, zortzi ahots eta orkestra handirako***

Buenaventura Iñiguez Tellechea

**Lanaren egitura:**

***a) Kyrie eleison-Christe eleison-Kyrie eleison***
Tonalitatea: La minorra – Larghetto.

Orkestra-laburraren ostean hasten da I. korua, eta horri erantzunez, II. korua, azkarrago, bi koruen arteko elkarrizketa polikoralari bide emanez. *Christeak* urrutiagoko tonalitateetara eramaten gaitu (La Bm.), bi ahots-bakarlari sartzeko (baxua eta kontraltoa).

Garaiko katedra-praxian I. korua profesionalek osatzen zuten (Musika Kaperako berekoek), eta kontraltoaren ahotsak (gizonezko heldua, askotan) musika-presentzia nabarmena zuen lanaren barruan. Aitzitik, Buenaventura I.ak kontralto-bakarlaria bazter utzi du emankizun honetan.

Hirugarren zatia –edo *Kyrie eleison*– lehen *Kyrie-ko* hasierako gaiaz hasten da, baina gero ihesean dabilen estilo librea hartzen du, balio azkar eta nahiko kromatikoez I. koruan, II.ak notarik luzeenetan laguntzen dion bitartean; eta azkenean, erritmoek 10 azken konpasetan egiten dute bat.

***b) Gloria in excelsis Deo***
Tonalitatea: La minorra – Allegro (*Gloria*), Andantino (*Laudamus te*), Andante (*Gratias agimus tibi*), Andantino (*Domine Deus*), Adagio (*Qui tollis*), Allegro moderato (*Quoniam tu solus*), Vivo (*Cum Sancto Spiritu*). Solo ugari daude, eta tertzeto bat erdialdean, baxuaren solo luze baten ostean. Hirukotea I. koruko tenorrak eta baxuak eta II. koruko tenorrak osatzen dute, nahiz eta, egileak berak adierazten duenez, tiple batez ordeztu daitekeen. *Gloria* mezako zatirik luzeena eta landuena da, testu bera hainbatetan errepikatzen delarik. Hariek garapen nabarmena dute *Quoniam*-eko allegro moderatoan, eta, batez ere, *Cum Sancto Spiritu*-ko amaierako vivoan.

***c) Credo***
Tonalitatea: Fa maiorra - Moderato. (*Credo in unum Deum*), Andante Moderato (*Et incarnatus est*), Allegro (*Et resurrexit*), Vivo (*Et vitan venturi-Amen*). “Orkestra handirako” mezak ez du Kredorik, nahiz eta egileak berak eskuz idatzi eta sinatutako partituran adierazten duen beste mezarakoa har daitekeela (“orkestra txikirako, 4 ahotsetara”). Lau ahotsetarako bertsio hori bi koru eta 8 ahotsetan abesten da Iruñeko Katedralean, ziur aski kapera-maisuren batek (Hipólito Ramírez Larraz?) ohiko taldearendako moldatu zuelako. Moldaketa hori, kasu honetan eta antzeko beste batzuetan, lan osoaren ardura I. koruari (Musika Kaperari) ematean zetzan, II. korua lehenarekin batera aritzen zelarik pasarte indartsuenetan, eta beste batzuetan (*Tacet*), isilduta. Hau da, II. koruak ez du ezer berririk ekartzen, lehenengoarekin egiten du bat unerik bereizgarrienetan, besterik ez. Horixe da gaur egun eskaintzen den bertsioa.

*Kredoak* “orkestra handirako” mezak baino koru-lan handiagoa eta solo gutxiago ditu. Halaber, orkestrazioa ez dago aurreko lanean bezain landuta.

***d) Sanctus***
Tonalitatea: Si bemol M. – Andante Mosso. Hala *Sanctus*a nola *Agnus Dei*a, benetako bi koru eta zortzi ahotsetarako idatziak, aurrekoak (*Kyrie, Gloria* eta *Credo*) baino laburragoak dira, argiki. Tronpek, goratuta, melodia gregorianoa eskaintzen digute, eta baxuaren bi konpasen ostean, bi koruei erantzuten diete. *Pleni sunt caeli* esaldia tenor bakarlariaren esku uzten da, eta II. koruak soilik erantzuten dio, bitxiki.

***e) Agnus Dei***
Tonalitatea: Fa M - Allegro Moderato.
Baxuaren eta tenorraren soloa, koru bien arteko elkarrizketa polikoralaz. Hirugarren *Agnusak* urruneko tonalitatera garamatza (Do M. sostenitua, enarmoniaz Re B. M eta Fa M.-n esnatzen dena), hori guztia bost konpasen ostean (*dona nobis pacem*); eta deigarria egiten da hori, meza osoaren harmonia soilaren aldean. Berehala ideia errepikatu eta “era baketsuan” amaitzen da, jatorrizko tonalitatean. Egileak liturgia-testuarekin bat bilatutako efektua dirudi.



**Buenaventura Íñiguez Tellechea** (Zangoza, 1840 - Sevilla, 1902) organo-jotzaile eta konpositorea izan zen. Hilarión Eslava izan zuen maisu, eta horrek bideratu zuen Sevillako katedraleko organista-lanpostura, helburu hori 1865ean lortu zuelarik, oposizio bidez. Kargua hartu eta egun gutxira, tokiko prentsa organoan zituen inprobisatzaile-dohainez mintzatzen zen. Sevillako Arte Batasuneko lehendakari izendatu zuten, Londresko Erret Akademiako zein Belliniko (Katania, Italia) Zirkulu Handiko kide izan zen, eta Bartzelonako Erakusketa Unibertsaleko Lehiaketan (1888) saritua.

**Aurelio Sagaseta Arízteguí** (Ituren, 1935 -) Iruñeko katedraleko kapera maisu-kalonjea da 1962az geroztik, Konposizioko katedraduna Pablo Sarasate Goi Mailako Musika Kontserbatorioan, Elizako Musikologoen Espainiako Elkartearen presidentea 1992tik, Bellas Artes de San Fernando akademiako musika-ataleko akademikoa eta koru- zein orkestra-kontzertuen zuzendaria.

HURRENGO KONTZERTUA:

Apirilak 11, osteguna | 20:00
San Zernin eliza

***Biolaren ahotsa***

Isabel Villanueva

Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala

Nafarroako Gobernua | Gobierno de Navarra

# ***Meza, zortzi ahots eta orkestra handirako.***

*Buenaventura Íñiguez Tellechea*

**Nafarroako Abesbatzen Federazioko Abesbatza sinfonikoa, Errioxako Orkestra sinfonikoa eta bakarlariak**

Orkestrako zuzendaria: **JESÚS MARÍA ECHEVERRÍA**

Abesbatzako zuzendaria: **MÁXIMO OLORIZ**



BALUARTE.
NAFARROAKO BATZAR
JAUREGIA ETA AUDITORIUMA

**Apirilak 10, asteazkena | 20:00**

FESTIVAL DE MÚSICA SACRA
ERLIJIO-MUSIKAKO JAIALDIA

ABRIL | **2019** | APIRILA